

## MERKATU SEGMENTAZIOA



Merkatu segmentazioa bi multzotan banatuko dugu: batetik, zerbitzua jasoko duten pertsonak eta bestetik, zerbitzura zeharkako lotura edukiko dutenak.

Zerbitzua jasoko duten pertsonen dagokionez, alzheimerrekin pairatzen duten pertsonak izango dira. Oro har, alzheimerrekin gaixotasuna jasaten duten pertsonak zaharrak izaten dira. Hortaz, zerbitzu hau beraiei zuzendua egongo da. Honez gain, pertsonak alzheimerrekin garatzen hasi aurretik, hau da, gaixotasuna detektatu bezain pronto gure zentzura etortzeko aukera eskainiko zaie. Honekin, gure ikerketa sakonagoa eta errealagoa egitea ahalbidetuko gaituztelako eta era berean, paziente horien gaixotasunaren garapena moteltzeko zenbait ekintza burutuko direlako.

Nahiz eta zerbitzu hau gaixoei jaso, ez dute beraiek kontratatuko. Beraz, ondorioztatu dezakegu pertsona horien familiak izango direla gure zerbitzua hautatu eta aldi berean ordainduko dutenak.

Enpresa hau pribatua izango da, baina zenbait plaza Diputazioaren esku geldituko dira. Hori horrela izan dadin, Diputazioak aurkezten duen lehiaketa batean parte hartu beharko dugu. Bertan, lehiaketan azaltzen diren baldintza gehien betetzen saiatu beharko dugu. Baldintza horiek beteaz lortuko baitugu plaza publikoak sortzeko ahalmena. Hau lortuz gero, paziente batzuk gure zentzura etorri ahal izateko aukera izango dute, trukean diru kantitate gutxiago ordainduz.

